5/2018 Foru Legea indarrean sartu zenez geroztik, ba al dago Nafarroako Gobernuko departamentuetan informazio publikoaren ardura duten atalak atxikita dauden organo guztiek Gardentasunari buruzko Legearen aplikazio mailari buruz egindako urteko txostenik? Eta enpresa publiko guztietan?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-24/PES-00048. Galdera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 15. artikuluaren betetzeari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 15. artikuluaren betetzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak bete al du Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 15. artikulua?

Hala eginez gero, zer informazio erabili du? Bete ezean, horren arrazoiak.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

---

## 11-24/PES-00049. Galdera, geure ANECA bat izateko aukerari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, geure ANECA bat izateko aukerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik legegintzaldi honetan aztertzeko Nafarroak ANECA propio bat izateko aukera?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

---

## 11-24/PES-00050. Galdera, curriculumeko prestakuntza-praktika ez-ordainduak egiten dituzten ikasleen Gizarte Segurantzako kotizazioetarako ordainak emateari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, curriculumeko prestakuntza-praktika ez-ordainduak egiten dituzten ikasleen Gizarte Segurantzako kotizazioetarako ordainak emateari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ba al dakizue 2025etik aurrera Espainiako Gobernuak jarraituko ote duen Administrazioan prestakuntza-praktika ez-ordainduak egiten dituzten ikasleen Gizarte Segurantzako kotizazioetarako hobariak ematen?

Espainiako Gobernuak hobaririk eman ezean, nork hartuko ditu bere gain Foru Administrazioarekin egindako kontratu horien kostuak?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-24/PES-00051. Galdera, Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoa ezartzearen ondorioz NUPen izandako kostu-igoerari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoa ezartzearen ondorioz NUPen izandako kostu-igoerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nola eginen dio aurre Nafarroako Gobernuak Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoa ezartzearen ondorioz NUPek izanen duen kostu-igoerari?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-24/PES-00052. Galdera, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiria dela-eta legegintzaldi honetarako dauden planei buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiria dela-eta legegintzaldi honetarako dauden planei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer plan duzue legegintzaldi honetarako Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiria dela-eta?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

---

## 11-24/PES-00053. Galdera, Oinarrizko osasun-laguntzan Psikologia ezartzeari eta kontratazio-zerrendei buruzkoa

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Oinarrizko osasun-laguntzan Psikologia ezartzeari eta kontratazio-zerrendei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2022ko ekainean, Osasun Departamentuak jakitera eman zuen Oinarrizko osasun-laguntzan Psikologiaren ezarpena abiatuko zela, eta horretarako Psikologiako profesional bat lanean hasiko zela Antsoaingo, Txantreako eta Arrotxapeko oinarrizko eskualdeetan.

Jarduketa horren lehenengo balorazioak positiboak izan ziren, eta, horrenbestez, Osasun Departamentuak Nafarroa osora hedatu zuen ekimen hori. Psikologiako profesionalak lanean hastea Oinarrizko Osasun Laguntzari buruzko Ekintza Planean jasota zegoen, eta lehentasuna zuen 2023rako aurrekontuen proiektuan.

Proiektu honetan bat egiten dute Oinarrizko Osasun Laguntzak eta Osasun Mentalak, pandemiaren eragina gehien pairatu duten bi osasun-esparruk. Programa hori Nafarroako Oinarrizko eta Komunitateko Osasun Laguntzarako Estrategian errotuta dago, eta berariaz jasota dator Oina-

rrizko Osasun Laguntzari buruzko Ekintza Planean, zeinetan psikologia indartzea alderdi garrantzitsua baita.

Hala ere, jakin badakigu bai zailtasunak daudela behar diren baliabide profesional guztiak lortzeko, bai lan-arazoak daudela horiek kontratatzean, bai eta lan-baldintza desberdinak dituztela ere haien kualifikazio-maila (Psikologia Klinikoa edo Psikologia Sanitario Orokorra) zein den.

Hori dela-eta, parlamentari honek honako galdera hauek egiten ditu:

– Kontuan hartuta ez dagoela Osasunbidea-NOZen zerrenda propiorik, zer kontratazio-zerrenda erabiltzen ari dira profesional horiek kontratatzeko? Noiz egin behar dira zerrenda horiek? Zer betekizun akademiko izanen dituzte? Oraindik ere Osasunbidea-NOZen Oinarrizko Osasun Laguntzan Psikologiarako berariazko zerrendarik ez dagoenez, bitartean zer alternatiba erabiltzen ari dira?

– Oinarrizko Osasun Laguntzako Psikologiako zenbat lanpostu bete dira eta zenbat daude kontratatzeke? Zein dira Psikologiako profesional horiek lanean ez egotearen arrazoiak?

– Oinarrizko Osasun Laguntzako Psikologiako profesional horietatik, zenbatek ematen diete arreta haur eta gazteei eta zein Eskualde Oinarrizkoetan? Aurreikusten diren lan-kargetarako nahikotzat jotzen al dira?

– Zer funtzio eta gaitasun zehaztu dira Oinarrizko Osasun Laguntzako Psikologiako lanpostu horietarako, Osasun Mentalak egiten duen arreta espezializatuarekin gainezarpenak egotea ekidite aldera?

– Zer arazo sortu dira laguntzaren arloan eta lanekoan Psikologia klinikoko eta/edo Psikologia Sanitario Orokorreko profesionalak kontratatzearen ondorioz? Zer irtenbide ezarri dira horiek ekiditeko edo konpontzeko?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

---

## 11-24/PES-00054. Galdera, Ecofert Sansoain enpresan Zubietako ingurumen-gunetik iritsitako lixibiatuak eta/edo lohiak Iruñerriko Mankomunitatetik iritsitako hondakin organikoekin kutsatu ote diren jakitekoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Ecofert Sansoain enpresan Zubietako ingurumen-gunetik iritsitako lixibiatuak eta/edo lohiak Iruñerriko Mankomunitatetik iritsitako hondakin organikoekin kutsatu ote diren jakitekoa buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ziurtatu al dezake Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Ecofert Sansoain enpresan ez dela inolako kutsadurarik egon Zubietako ingurumen-gunetik iritsitako lixibiatu eta/edo lohien eta Iruñerriko Mankomunitatetik iritsitako hondakin organikoen artean?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## 11-24/PES-00055. Galdera, Ecofert Sansoain enpresan Gipuzkoatik iritsiak ez diren lixibiatuak eta/edo lohiak Iruñerriko Mankomunitatetik iritsitako hondakin organikoekin kutsatu ote diren jakitekoa buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Ecofert Sansoain enpresan Gipuzkoatik iritsiak ez diren lixibiatuak eta/edo lohiak Iruñerriko Mankomunitatetik iritsitako hondakin organikoekin kutsatu ote diren jakitekoa buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ziurta al dezake Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Ecofert Sansoain enpresan ez dela inolako kutsadurarik egon Gipuzkoa ez den beste edozein jatorritatik iritsitako lixibiatu eta/edo lohien eta Iruñerriko Mankomunitatetik iritsitako hondakin organikoen artean?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

## 11-24/PES-00056. Galdera, Nafarroako Inbertsio Institutuko Inbertsio Batzordearen aktak argitaratzeari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako Inbertsio Institutuko Inbertsio Batzordearen aktak argitaratzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zergatik ez dira argitaratzen Nafarroako Inbertsio Institutuko Inbertsio Batzordearen aktak?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

---

## 11-24/PES-00057. Galdera, hezkuntza itunduko sindikatuekiko eta patronalarekiko lan-mahai bat sortzeari buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, hezkuntza itunduko sindikatuekiko eta patronalarekiko lan-mahai bat sortzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Alderdi Popularra talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak pentsatua al du Hezkuntza itunduko sindikatuekiko eta patronalarekiko lan-mahai bat sortzea?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-24/PES-00058. Galdera, hezkuntza itunduan irakasleak ordezteari buruzkoa.

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, hezkuntza itunduan irakasleak ordezteari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Alderdi Popularra talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak aurreikusita al du hezkuntza itunduko irakasleak ordezteko “itxarote-egunak” murriztea, hezkuntza publikoarekin parekatzeko?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

# 11-24/PES-00059. Galdera, hezkuntza itunduko irakasle ez diren langileen ordainketa eskuordetuari buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, hezkuntza itunduko irakasle ez diren langileen ordainketa eskuordetuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Alderdi Popularra talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak aurreikusita al du abian jartzea hezkuntza itunduko irakasle ez diren langileen ordainketa eskuordetua?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

# 11-24/PES-00060. Galdera, Gipuzkoako ingurumen-gunea-1 fasetik Ecofert Sansoain SL enpresak Artaxoan dituen instalazioetara hondakinak eramateari buruzkoa

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Gipuzkoako ingurumen-gunea-1 fasetik Ecofert Sansoain SL enpresak Artaxoan dituen instalazioetara hondakinak eramateari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Estatuaren barruan hondakinak garraiatzeko arauak ematen dituen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuan ezartzen dira autonomia-erkidegoen arteko hondakin-garraioak jakinarazteko betebeharrak. Errege dekretu horretako 5.2. artikuluan ezarritako hondakinen garraioak aldez aurretik autonomia-erkidegoen artean jakinarazteko betebeharraz gain, jakinarazi beharrekoak dira, baita ere, hondakin ez arriskutsuen garraioak, hilean 10 tonatik gora garraiatuz gero.

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak prozedura bat garatu du garraioaren eragileak aldez aurreko jakinarazpena eta identifikazio-agiriak igor ditzan, bai eta helmugako kudeatzaileak hondakinak onartu edo ezes-

teko ere, ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 6., 7. eta 8. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

Hori dela-eta, galdera hauei idatzizko erantzuna ematea eskatzen dugu:

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunak jakinarazi al dio noizbait Nafarroako Foru Komunitateari “Esir” sistemaren bidez Gipuzkoako Ingurumen Gunea-1. fasetik Ecofert Sansoain SL enpresak Artaxoan dituen instalazioetara egin behar zuen hondakin-garraioa?

2.- Aurreko galderan aipatutako hondakinen garraioari buruzko jakinarazpenik egin bazen, zenbatetan egin ziren?

3.- Zein LER kode zuten “eSIR” sisteman sartzen ziren jakinarazpen horiek?

4.- 19 08 12 LER kodea zuten hondakinak baziren, arriskutsua den 19 08 11* kodearen “ispilu-kodea” izanik, zer dela-eta ez zen exijitu karakterizazio bat egiteko, hondakin horrek substantzia arriskutsuak zituen ala ez egiaztatzeko, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2019ko martxoaren 28ko epaian argi utzi zuen moduan?

5.- Nafarroako Foru Komunitateak agertu al da noizbait Gipuzkoako Ingurumen Gunea-1. fasetik Ecofert Sansoain SL enpresak Artaxoan dituen instalazioetara hondakin-garraioaren aurka? Zergatik?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

---

## 11-24/PES-00061. Galdera, familientzako elkarguneei buruzkoa

*JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porras jaunak egindako galdera, familientzako elkarguneei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari Carmen Maeztu Villafranca andreari, idatziz erantzun dezan:

Zer unetan da familia elkartzeko guneak Nafarroako gizarte zerbitzuetako barruti guztietara hedatzeko prozesua? Zer irizpide erabiltzen dira erabakitzeko barruti batean familia elkartzeko gune bat ezarriko den ala ez? Zer datu eman dezake zure Departamentuak elkartzeko guneetara iristen diren kasuen kopuruari buruz, etxebizitza-eremuaren arabera?

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 25ean.

Foru parlamentaria: Javier Arza Porras

---

**G saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# INT20240008. 2023. urtean zehar foru parlamentariek jasotako ordainsariak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 17.4 artikuluak ezartzen du Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar direla foru parlamentari guztiek aurreko urtean jasotako ordainsariak.

Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak foru parlamentariek 2023. urtean zehar jasotako ordainsari guztien zerrenda zehaztua igorri dio Mahaiari.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

| Abizenak eta izena | Ondainsari finkoa | Bertaratzeagatiko ordainsaria | Kilometro-ordaina | Bestelako prestazioak[1] | Gauzazko ordainsaria | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| AGUIRRE OVIEDO, JORGE | 38.458,96 | - | - | - | 215,12 | 38.674,08 |
| ALFARO GARCÍA, BEGOÑA | 11.177,43 | - | - | - | 53,78 | 11.231,21 |
| ÁLVAREZ ALONSO, MARTA | 57.688,47 | - | - | - | 322,68 | 58.011,15 |
| ALZÓRRIZ GOÑI, RAMÓN | 64.541,00 | - | - | - | 322,68 | 64.863,68 |
| ANSA ASCUNCE, ANA ISABEL | 31.247,90 | - | - | - | 147,90 | 31.395,80 |
| ANSA ECHEGARAY, ÁNGEL | 57.688,47 | - | - | - | 322,68 | 58.011,15 |
| ARAIZ FLAMARIQUE, ADOLFO | 57.688,47 | - | 2.258,20 | - | 322,68 | 60.269,35 |
| ARAKAMA URTIAGA, JAVIER | 38.318,67 | - | - | - | 215,12 | 38.533,79 |
| ARANBURU BERGUA, ISABEL | 49.836,42 | - | - | - | 268,90 | 50.105,32 |
| ARZA PORRAS JAVIER | 28.844,25 | 157,36 | - | - | 188,23 | 29.189,84 |
| ASIAIN TORRES, MIKEL | 57.688,47 | - | 95,20 | - | 322,68 | 58.106,35 |
| AZCONA MOLINET, PABLO | 59.431,53 | - | 4.278,12 | - | 322,68 | 64.032,33 |
| AZNAL SAGASTI, LAURA | 61.601,40 | - | 146,88 | - | 322,68 | 62.070,96 |
| AZNÁREZ IGARZA, AINHOA | 31.247,90 | - | - | - | 147,90 | 31.395,80 |
| BARCOS BERRUEZO, UXUE | 47.043,29 | - | - | - | 268,90 | 47.312,19 |
| BIURRUN URPEGUI, Mª ARÁNZAZU | 57.688,47 | - | - | - | 322,68 | 58.011,15 |
| BONILLA ZAFRA, ALBERTO | 31.247,90 | - | - | - | 147,90 | 31.395,80 |
| BUIL GARCÍA, MIKEL | 35.154,84 | - | - | 22.260,89 | 147,90 | 57.563,63 |
| BUJANDA CIRAUQUI, MIGUEL | 43.266,32 | - | 3.004,28 | - | 322,68 | 46.593,28 |
| CHUECA CHUECA, Mª OLGA | 31.247,94 | - | 2.173,28 | - | 188,23 | 33.609,45 |
| CRESPO LUNA, IBAI | 18.588,52 | - | 1.077,12 | - | 107,56 | 19.773,20 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| DE SIMÓN CABALLERO, MARISA | 35.154,84 | - | - | - | 147,90 | 35.302,74 |
| ELIZALDE URMENETA, ANA | 30.927,44 | 157,36 | - | - | 188,23 | 31.273,03 |
| ESPARZA ABAURREA, JOSE JAVIER | 64.901,24 | - | - | - | 322,68 | 65.223,92 |
| ESPARZA GARRIDO, JORGE | 29.591,51 | - | - | - | 147,90 | 29.739,41 |
| ESPORRÍN LAS HERAS, MAITE | 30.927,44 | 157,36 | - | - | 188,23 | 31.273,03 |
| FANLO MATEO, PATRICIA | - | 8.016,20 | - | - | 147,90 | 8.164,10 |
| GARBAYO BERDONCES, RAQUEL | 57.688,47 | - | 5.377,68 | - | 322,68 | 63.388,83 |
| GARCÍA JIMÉNEZ, JAVIER | 61.595,37 | - | 5.037,12 | - | 322,68 | 66.955,17 |
| GARCÍA MALO, Mª ISABEL | 57.688,47 | - | 38,76 | - | 322,68 | 58.049,91 |
| GARRIDO SOLA JOSÉ MIGUEL | 18.588,52 | - | - | - | 107,56 | 18.696,08 |
| GONZÁLEZ FELIPE, PEDRO JOSÉ | 57.688,47 | - | 4.775,20 | - | 322,68 | 62.786,35 |
| GONZÁLEZ MARTÍNEZ, DOMINGO | 57.688,47 | - | 4.309,28 | - | 322,68 | 62.320,43 |
| GUZMÁN PÉREZ, CARLOS | 33.755,20 | - | - | - | 188,23 | 33.943,43 |
| HUALDE IGLESIAS, UNAI | 78.931,30 | - | - | - | 322,68 | 79.253,98 |
| IBÁÑEZ PÉREZ, Mª YOLANDA | 64.901,24 | - | 6.256,10 | - | 322,68 | 71.480,02 |
| IBARROLA GUILLÉN, Mª CRISTINA | 31.247,90 | - | - | - | 147,90 | 31.395,80 |
| IRIARTE LÓPEZ, IÑAKI | - | 17.925,30 | - | - | 322,68 | 18.247,98 |
| IZURDIAGA OSINAGA, ARANZAZU | 57.688,47 | - | 478,04 | - | 322,68 | 58.489,19 |
| JIMENEZ ARAGÓN, IRATI | 31.247,94 | - | 92,48 | - | 188,23 | 31.528,65 |
| JIMÉNEZ ROMÁN, EMILIO | 9.614,76 | 7.257,51 | 1.399,44 | - | 188,23 | 18.459,94 |
| JURÍO MACAYA, INMACULADA | 60.994,30 | - | 2.143,92 | - | 322,68 | 63.460,90 |
| LECUMBERRI URABAYEN, JAVIER | 57.688,47 | - | - | - | 322,68 | 58.011,15 |
| LLORENTE TRUJILLO, Mª ELENA | - | 11.626,32 | 156,00 | - | 147,90 | 11.930,22 |
| LÓPEZ CORDOBA, DANIEL | 31.247,94 | - | 2.620,72 | - | 188,23 | 34.056,89 |
| LÓPEZ MAÑERO, CRISTINA | 31.247,94 | - | - | - | 188,23 | 31.436,17 |
| LUCERO DOMINGUES, KEVIN | 31.247,94 | - | - | - | 188,23 | 31.436,17 |
| MAGDALENO ALEGRÍA, VIRGINIA | 31.247,90 | - | - | - | 147,90 | 31.395,80 |
| MAIZ ULAIAR, ENEKA | 31.247,94 | - | 598,40 | - | 188,23 | 32.034,57 |
| MEDINA SANTOS, NURIA | 31.247,90 | - | - | 159,47 | 147,90 | 31.555,27 |
| MENA BLASCO, CARLOS | 49.836,42 | | - | - | 268,90 | 50.105,32 |
| NOSTI IZQUIERDO, Mª TERESA | 35.154,83 | - | 187,68 | - | 188,23 | 35.530,74 |
| OLAVE BALLARENA, Mª ISABEL | 31.247,90 | - | 1.656,48 | - | 147,90 | 33.052,28 |
| PERALES HURTADO, PATRICIA | 31.247,90 | - | - | - | 147,90 | 31.395,80 |
| PÉREZ ARREGUI, FRANCISCO | 31.247,90 | - | 711,60 | 20.466,47 | 147,90 | 52.573,87 |
| PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA, CARLOS | 31.247,90 | - | 1.274,64 | - | 147,90 | 32.670,44 |
| RAMÍREZ ERRO, MAIORGA | 35.154,84 | - | 1.471,40 | - | 147,90 | 36.774,14 |
| REGULEZ ÁLVAREZ, BLANCA ISABEL | 57.688,47 | - | 2.330,24 | - | 322,68 | 60.341,39 |
| RODRÍGUEZ GÓMEZ, JESUS Mª | 12.018,43 | - | 218,28 | - | 67,22 | 12.303,93 |
| ROYO ORTIN, IRENE | 31.247,94 | - | 3.004,24 | - | 188,23 | 34.440,41 |
| RUIZ JASO, BAKARTXO | 35.154,84 | - | - | - | 147,90 | 35.302,74 |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| SAN MARTÍN RODRÍGUEZ, LETICIA | 4.807,38 | 7.710,64 | 122,40 | - | 188,23 | 12.828,65 |
| SÁNCHEZ DE MUNIAIN LACASIA, JUAN LUIS | 64.901,24 | - | - | - | 322,68 | 65.223,92 |
| SOLANA ARANA, Mª RONCESVALLES | 57.688,47 | - | - | - | 322,68 | 58.011,15 |
| SOTO DIAZ DE CERIO, MIREN ITXASO | - | 5.192,88 | 91,80 | - | 80,67 | 5.365,35 |
| SUÁREZ BENITO, JOSÉ | 31.247,90 | - | 2.237,20 | 20.466,47 | 147,90 | 54.099,47 |
| TRIGO OUBIÑA, FRANCISCO JAVIER | 28.844,25 | 157,36 | 4,76 | - | 188,23 | 29.194,60 |
| TXOPERENA MATXIKOTE, SEVERIANO | 31.247,94 | - | 1.275,00 | - | 188,23 | 32.711,17 |
| UNZU GARATE, AINHOA | 61.595,37 | - | 429,76 | - | 322,68 | 62.347,81 |
| VALDEMOROS ERRO, Mª JESÚS | 57.688,47 | - | - | - | 322,68 | 58.011,15 |
| ZABALETA ARAMENDIA, MIKEL | 35.154,83 | - | 1.939,36 | - | 188,23 | 37.282,42 |
| ZAPATERO SORIA, FELIX | 31.247,94 | - | 1.917,60 | - | 188,23 | 33.353,77 |
| TOTAL | 2.811.365,16€ | 58.358,29€ | 65.188,66€ | 63.353,30€ | 16.093,75€ | 3.014.359,16€ |

[1] Kargua uzten duten parlamentariek jasotzen duten diru-kopurua eta Gizarte Segurantzako kotizazioen itzulketa.

# 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

*HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko Ramón Alzórriz Goñi jaunak Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea luzatzea eskatu du. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko otsailaren 15eko 17:30era arte luzatzea.**

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentariaren elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

# 11-23/ELC-00012. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea

*HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko Ramón Alzórriz Goñi jaunak Nafarroako Kontseilurako kontseilukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea luzatzea eskatu du, Alfredo Irujo Andueza jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Alfredo Irujo Andueza jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz Nafarroako Kontseilurako kontseilukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko otsailaren 15eko 17:30era arte luzatzea.**

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

# 11-23/ELC-00013. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea

*HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko Ramón Alzórriz Goñi jaunak Nafarroako Kontseilurako kontseilukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea luzatzea eskatu du, José Iruretagoyena Aldaz jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** José Iruretagoyena Aldaz jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz Nafarroako Kontseilurako kontseilukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko otsailaren 15eko 17:30era arte luzatzea.**

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

# PER20240007. 2023-2024 eperako hitzarmena, Nafarroako Parlamentuaren ordezkarien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen Langileen Batzordearen artekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen Langileen Batzordearen artean iritsitako 2023tik 2024ra bitarteko urteetarako hitzarmena, 2024ko urtarrilaren 28an sinatua.

2. Agintzea hitzarmen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## 2023-2024 eperako hitzarmena, Nafarroako Parlamentuaren ordezkarien eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko funtzionarioen Langileen Batzordearen artekoa

1. IRAUNALDIA

2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoa. Hitzarmen honek luzapen automatikoa izanen du 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera, beste hitzarmen batek ordeztua ez den bitartean.

2. ARAU-ERREFORMAK

Hitzarmenari gehitzen zaizkio, eranskin gisa, honako arau-erreforma hauek

• Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen oporrei, lizentziei eta baimenei buruzko Erregelamenduaren erreforma. (1. eranskina)

• Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren erreforma. (2. eranskina)

3. LANALDIA

**Aparteko orduak.**

2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, izaera orokorrarekin, urtean aparteko orduen kopuruak ez du inoiz eginen 70 baino gehiago. Kopuru hori gainditu gero, behar adina arrazoitu beharko da eta ez da onartuko errepikapena izatea, ez denboraren ez pertsonaren aldetik ere, hori gertatzea egiturazko beharrizana izanen baita, bestelako jarduketa bat eskatuko duena.

Ez da soldatarik gabeko baimenik emanen erabiltzeko aparteko ordurik gelditzen bada, salbu eta eskatutako denborarako aski ez den zatian.

Aparteko orduak baliatu beharko dira atsedena hartuz haiek egin ondoko sei hilabeteetan zehar, betiere zerbitzuaren beharrek horretarako aukera ematen badute. Bestela, planifikazio bat eginen da, haiek baliatzeko gehienez ere sei hilabete gehigarritan.

Zerbitzu-burutzek aldizkako jarraipena eginen dute haien menpeko langileek sorrarazten dituzten aparteko orduen egoerari buruz, eta zainduko dute haiek balia daitezen enplegatuen eskariekin bat, edo ura ezinezkoa denean aurreikusitako epeen barruan.

**Lan-txanden antolaketa, arratsaldeko txanda jarraituari edo goiz eta arratsaldeko txandari dagokionez.**

Lanaldia betiere dago baldintzatuta parlamentuz kanpoko jarduerari eta Legebiltzarrean sortzen diren beharrizanei erantzutera.

17:30etik aurrera egiten diren parlamentuz kanpoko ekitaldietarako, Mahaiak erabakiko du, zerbitzuburuek proposaturik, zer langile diren derrigorrezkoak, eta horiek zehaztea zerbitzuburuei dagokie.

Langile horiek zilegi izanen dute 7:30 orduko iraupeneko arratsaldeko txanda jarraitua egitea, ekitaldiaren bukaera-ordu aurreikusian amaituko dena, edo goiz eta arratsaldeko txanda bat, iraupen eta bukaera-ordu horiek berak izanen dituena. Bukaera-ordua ezin izanen da 19:30etik haragokoa izan.

17:30etik aurrera egiten den jarduera aparteko ordutzat hartuko da, eta kasuko ordainsaria erakarriko du, ordubete baino gehiagokoa izanez gero.

4. URTEKO AZTERKETA MEDIKOA

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileek urtean behin eginiko osasun azterketa baterako eskubidea izanen dute, borondatezkoa, bi urtean behineko azterketa ginekologikoak eta oftalmologikoak barne.

5. LEHENAGOKO HITZARMENAK

Hitzarmen honek aurreikusten ez duen orotan, lehenago onetsiriko baldintzak aplikatuko dira,

non eta ez dioten kontra egiten hitzarmen honetan xedatutakoari.

6. HITZARMENAREN GARAPENA ETA ARGITALPENA

Hitzarmen honen aplikazio eta garapenean entzutea emanen zaio Langileen Batzordeari, eta, kasu bakoitzean, Nafarroako Parlamentuak egoki den mailako arauaren bidez jasoko ditu hitzarmen honen apartatuak, bai eta horien geroagoko garapena ere, formalki onetsiak izan daitezen eta indarrean sar daitezen.

Era berean, hitzarmena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

# PER20240008. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen oporrei, lizentziei eta baimenei buruzko Erregelamenduaren aldaketa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik legelari nagusiaren txostena eta Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen oporrei, lizentziei eta baimenei buruzko Erregelamendua aldatzeko proposamena, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 27. artikuluarekin eta lehen xedapen gehigarriarekin bat, Langileen Batzordearen adostasunarekin, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen oporrei, lizentziei eta baimenei buruzko Erregelamenduaren aldaketa onestea. Testua erabaki honekin batera doa (PER20240008).

2. Erabaki hau eta onetsitako erregelamenduaren aldaketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen oporrei, lizentziei eta baimenei buruzko Erregelamenduaren aldaketa

Langileen Estatutu indardunaren 27. artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian ezarritako prozeduraren ondorioz eta Langileen Batzordearen adostasunarekin, aldatu egiten da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen oporrei, lizentziei eta baimenei buruzko Erregelamendua.

**Artikulu bakarra**. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen oporrei, lizentziei eta baimenei buruzko Erregelamenduaren aldaketa.

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen oporrei, lizentziei eta baimenei buruzko Erregelamenduaren aginduak, ondotik datozenak, honela idatzita gelditurko dira:

Bat. 4 artikulua. 1. apartatuaren zenbakia eta 2. eta 3. apartatuak gehitzea.

“4. artikulua. Oporren iraupena.

1. Erregelamendu honen aplikazio-esparruan dauden langileek, zerbitzu aktiboko urte oso bakoitzeko, eskubidea izanen dute hogeita zazpi laneguneko opor ordaindua hartzeko, edo zerbitzua denbora gutxiagokoa izan bada, proportzionalki zor zaien oporraldia.

2. Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioek eskubidea izanen dute lau opor-egun gehigarri hauek izateko: lehena, hamabost urteko antzinatasuna betetzean, eta gainerakoak hogei urtekoa, hogeita bost urtekoa eta hogeita hamar urtekoa betetzean, hurrenez hurren.

3. Aurreko apartatuan aipatutako opor-egun gehigarriak gehituko zaizkie jardunean emandako urte oso bakoitzean sortzen direnei. Zerbitzualdia txikiagoa denean, proportzioan dagozkion egun gehigarriak eraginen dira.”

Bi. 5 artikulua. 4. apartatua aldatzea

"4. Oporretako egunak honako multzo hauetan banatzen dira:

a) 7,5 orduko lanaldiko hamabi opor-egun, urte osoan zehar batera nahiz banaka hartu ahalko direnak.

b) Hamabost opor-egun, ekainaren 20tik irailaren30era bitarte hartu beharrekoak. Bloke hau hiru alditan banatu ahalko da. Aipatu denbora-tartean, oporrengatik lanaldiko 6,5 ordu kenduko dira uztailaren 1aren eta irailaren 15aren artean, edota 7,5 ordu tarte horretatik kanpo.

c) Antzinatasunagatiko opor-egun gehigarriak hartu beharko dira ekainaren 20tik irailaren 30era bitarte hartu beharko dira.”

Hiru. 38 artikulua. 2. apartatua aldatzea eta 3. eta 4. apartatuak gehitzea.

"2. Nafarroako Parlamentuko langileek eskubidea izanen dute norberaren aferetarako baimen ordainduko bi egun gehigarri izateko hemezortzi urteko antzinatasuna betetzean; horri beste egun bat gehituko zaio 24 urteko antzinatasuna betetzean eta beste bat hortik aurrera betetzen diren hiru urteko.

3. Aurreko apartatuan aipatutako norberaren aferetarako egunak gehituko zaizkie jardunean emandako urte oso bakoitzean sortzen direnei. Zerbitzualdia txikiagoa denean, proportzioan dagozkion egun gehigarriak eraginen dira.

4. Zerbitzuaren beharrekin bateragarria baldin bada, artikulu honetako baimen ordaindua orduka har daiteke."

Lau. Xedapen gehigarria bat gehitzea.

"Laugarren xedapen gehigarria. – Opor-egun eta norberaren aferetarako baimen ordaindu gehigarriak, antzinatasunagatik urtero langile bakoitzari dagozkionak, kalkulatuko dira urte bakoitzeko urtarrilaren 1eko datarekin, aipatu egunean duen antzinatasunaren arabera. Urtean zehar betetzen diren antzinatasunagatiko egun gehigarriak proportzioan gehituko dira."

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek 2024ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950